

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure inguruan inoiz ikusi ez den zerbitzu bat eskainiko dugu. Helmuga azken momenturarte jakingo ez duten bidaia agentzia, bezeroen jakin mina sortuko duena.

Gure produktua erosiko balute bezeroek, abentura zoragarri bat biziko lukete, esperientzi berri eta ahaztezin bat, jakin minez betetakoa, inoiz bizitu ez dituzten ilusioz betetako oprak.

Nobedadea, gure inguruan ez dutelako horrelako zerbitzurik asmatu eta guk zerbitzua ongi salduko bagenu jende asko erakarriko genuke.

Bidaia pertsonalizatzeko aukera emango genuke, bakoitzaren zaletasun edo gustuen arabera, betiere bidaiaren helmuga jakin gabe eta bezeroen jakin mina mantenduz azken momenturarte.

Beste aldetik, bidai bat prestatzeko garaian sentitzen den estresa edo haserrea saihestu eta ekidingo genuke gure lanarekin.

Balio kualitatiboari dagokionez, ez-ohikoa izango da. Bezeroen nahietara moldatzen garenez jendeak beti nahiko ditu gure zerbitzuak kontsumitu.

Balio kuantitatiboari dagokionez, prezioak pertsonaren ahalmenen baitan eskainiko ditugu. Denetarik edukiko dugu, prezio altuak eta baxuak eta pertsona bakoitzak eskatzen duenaren arabera emango azalduko dizkiegu gure eskaintzak.

Lehen gure inguruan ez ziren eskaintzen horrelako bidai hauek eta orain guk eskainiko dugu horrelako zerbitzu bat, jende guztiren eskura jarriko genuke gure agentzia, beraz eskuragarritasuna eskainiko genuke.